

BASERRITAR FEMINISMOA IKUSPEGI DEKOLONIALETIK



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Bizilurrek gonbidatuta, Brasil eta Argentinako nekazal mugimenduetako emakume talde bat izan da gurean. Nekazal feminismo, herrikoï, dekolonial eta antirrazistaren eraikuntzan gogoetak eta hausnarketak elkarbanatu zituzten Urdulizeko Mentxakane baserrian antolatutako solasaldian. Bertan esandako ideia nagusi batzuk dakartzagu.

Ekonomia kapitalistak “denbora lapurtu, lurraldeak usurpatu, memoriak konkistatu, gorputzak bortxatu eta komunitatea suntsitzen du”. Denak daude ados: sistema kolonial batek zeharkatutako indarkeria patriarkal, arrazista eta kapitalista ugarien aurka borrokatzeak batzen gaitu.

Baserritarren lana zentrala da, elikadura osasungarria ekoiztea delako bizitza defendatzen duen ekonomia feministaren ardatz nagusietako bat. Honi erreparatzen diote, guztion bizitzak jartzen dituelako erdigunean; baita nekazarien ekonomia ere, komunitateen jakintzatik eta praktiketatik abiatzen delako.

Nekazal feminismoaren sorrera ez zen pentsamendutik abiatu, borrokatik, antolakuntzatik eta praktikatik baizik. Nekazal mugimendu hauek hastapenetan ez zuten feminismoa lantzen ari zirenen kontzientziarik, baina *de facto* ekoizpen agroekologikoaren aldeko genero eta klase borroka bat sortu zuten. Ezagutza hori guztia ez da akademian

ikasten, emakume baserritarretan eta jakintza herrikoian oinarrituta dago. Honekin guztiarekin, mezua argia da: “Feminismorik gabe ez dago agroekologiarik”.

Baina kexu dira Europako feminismoak joera duelako gauzak nola egin behar dituzten esateko. Alde handiak daude hiri-feminismoaren eta landa-feminismoaren artean ere. Arrakala horietaz hitz egiten ez den bitartean, harremanek kolonialak eta arrazistak izaten jarraituko dute.

Beraz, feminismo dekolonialen eraikuntza Mentxakane baserrian partekatutako espazioan, edo antzekoetan, egiten dela baieztatu zuten. Banatzen eta batzen gaituena aurkitzeko. Bakoitzak “bere oinetatik” azal ditzen guztiok bizi ditugun minak eta esperientziak, partekatuta. Botere eta zapalkuntzen aurrean, feminismoak elkarriketarako eta elkar aitortzeko gaitasuna duelako.

Mendebaldeko feminismoan lur eta lurralde defentsarik ez dagoela aipatu zuten. Eta “izan ahal izateko, lurra defendatu behar dugu”. Ispilu aurrean jartzen gaituzte, haiengandik zer ikasia dugu, nekazal feminismoak kolonialismoaren gaia lurraren defentsarekin batera jartzen duenean. Hala, Euskal Herriko feminismitik ere argi izan behar dugu gure lurraren defentsa gure deskolonizaziotik abiatzen dela.

Errezital batekin itxi zen saioa, esandakoak argiki laburbiltzen dituen:

Elikadura-burujabetza eta -segurtasuna eraikitzeke, emakume nekazariak baloratu behar dute: Bere historia, bere kultura eta bere herri-jakintza, borrokan, antolaketan eta ekoizpenean, esperientziak sozializatu.
Kultura patriarkalean, non mendekotasunak naturala dirudien, ikuspegi sexista hori deseraiki behar dugu. Emakumeek sartzeko eta irteteko baimena eskatu behar dutenean, gizarte kapitalistaren inposaketa da hori. Baimena! Nik ez dut eskatzen! Baimena Ama Lurrari eskatzen diot. Hura lantzeko eta harekin ogia egiteko. Elikagai osasungarriak ekoizteko, elikatzeke giza eskubidea bermatzeko. Burujabetza borroka multifazetikoa da; EZ! esaten jakitea da eredu kapitalista, arrazista eta patriarkalaren inposaketari, eta nazioaren menpekotasunari. Nekazal-industriari aurre egiteko, transgenikoekin eta pestizidekin amaitzeko, gaixotasunak eta kutsadura sortzen dituztelako. Elikagai osasungarriak ekoiztea da gure eginkizuna, eta jende antolatuarekin, klase, genero eta etniako zapalkuntzekin amaitzea, antolatzeke askatasunarekin. Praktika eta teoria uztartuz, burujabetza eraikiz, eraldaketa lortzeko egunero borrokatuz. ●



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.



NAVARRA : NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modus

A ZE FAUNA!

AITAREN HIZKUNTZAN EZ BADA,
“ARRAIN BAT, BESTERIK EZ”ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

Txikitatik erakutsi didazun “Donosti”-ko kaian ezagutu nuen. Nire lehen kainabera teleskopiko opari, “Kaiarribatik” “Mollardira” jaurti nuen apeua, estreinakoz. Halako batean, beruna arroaren batean trabatuta geratu zitzaidalakoan, tira eta tira hasi nintzen. Haria ez zen eteten; berehala, ur-azalean etzanda plisti-plasta borrokan ari zen arraina ikusitakoan, ohartu nintzen. Zortekoa ni, inguruko aitona batek lagundu baitzidan arraina pixkanaka jaso eta eskilaratara hurbiltzen. “Kontuz, hortzekin harrapatuz gero, haria aise moztuko baitu”.

Uretatik atera eta “klok-klok” moduko hotsa ateratzen zuen, ahoa ireki eta hegatsak zabaldu ahala. Hortzak ikusitakoan erabaki nuen haria badaezpada ere muturraren aurrean moztea –muskuilu eta krustazeoen oskolak erraz txikitu ditzake-. Hantxe joan nintzen, lasterka zure kaiko txokora, globo aerostatiko bat baino puztuago. “Zer da?”; eta zuk, “ez dakit, baina bizilagunak jakingo du”. Garai hartako “google”. Etxera korrika. Eta laket-arrantzan iaioa zen bizilagunak: “Pez ballesta, oso goxoa da! 1980ko ha-

markadan Afrikan milaka tona arrantzatu ziren, ia desagertzeraino. Hemen gero eta gehiago ikusten dira, uraren tenperatura igo ahala. Azala zaldun baten armadura bezain gogorra du, eta zaila da kentzen; baina ongi eginez gero, labean gozatu-ko duzue. Eta burua, gorputzaren erdia dena, aprobetxatu salda baterako!”. Etxera ekarritako arraintzat jarri ohi nuen plater handiena, behingoagatik, aproposa zen; oraingoan bai. Biharamunean erakutsiko zenidan, etxeko libururen batean, “balezta” zein arma zen, eta arrainak hegats dortsalak blokeatzeko duen mekanismoarengatik zuela bere izena. Hara nondik zetorren, uretatik atera ahala, entzuten nuen soinu hura! Lehen hegats dortsala defentsa gisa altxatzean, bigarren hegatsak seguru funtzioa hartzen du, honen jaitsiera eragotziz; hegats handia berriro jasotzeko, lehenik txikia askatu beharko du. Antza, pitzaduratan ainguratzeko eta harrapariak uxatzeko sistema da. Arrek ere erabiliko dute, bereziki udaberri-uda garaian, habia egin eta hura oldarkor babesten dutenean.

Nire urtebetetzea azkenekoz ospatu genuen egunerako ere arrain hau erosi

nuen. Oraingoan, arrain-saltzaileak hartu zuen arrainari azala kendu eta hura garbitzeko lana; “arte txikiekin hartu ohi dute artisau-arrantzaileek, gehienetan sareekin (mallabakarra, tresmaila...); ale gutxi iristen dira eta jendeak ez du ezagutzen, baina oso haragi trinko eta zapoetsua du”. Ondorengo mahai-inguruan osatu genuen istorioa, gurearekin; eta nola ez, haren zaporea oroitu. Zurekin konpartitutako azken Gabonetako arrainzopak ere, bizilagunaren aholkuari jarraiki, haien buruen zukua izan zuen.

Itsas-oilar handiaren ingurukoa izan zen entzun zenuen “A Ze Fauna” sail honetako azken artikulua: arrainik hunkigarrienarena, niretzat; zu parte baitzinen, kontatutako istorio hartan. Orain, isiltasunaren hizkuntza ulertzen zidan horri, nola esan agur? Hemen duzu, beste arrain bat: hunkigarriena zena, zuretzat. Denak ez direlako berdinak. Udan txalupan kainaberarekin laket-arrantzara joan zinen azken aldian, zure gertukoenekin zinela, zer eta baleztarraina harrapatu zenu(t) en, Santa Klara atzealdean. Bai, baleztarrain bat ikusten dudan bakoitzean ere, elkartuko gara. ●

BALEZTARRAINA

*Balistes capricus***TALDEA:** Ornoduna / Arraina.**NEURRIA:** 30-40 cm.**HELDUTASUN SEXUALA:** 1 urterekin.**BIZIRAUPENA:** 8-12 urte.**NON BIZI DA?** 10-100 metroko hondo hareatsu nahiz arrokatsetan.**ZER JATEN DU?** Itsas-hondotik gertu bizi diren ornogabe bentonikoak (krustazeo, molusku eta ekinodermoak).**BABES MAILA:** Ez dago babestuta.

MAX RYZANOV / WIKIMEDIA COMMONS

LOREAK LORATEGIETAN ETA PERTSONAK KAIOLETAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Pertsonak kaiolatan sartuta eza-gutu ditu gure espezieak. Duela ez asko, Europako estatu handiustekoek mundu osoan koloniak zituztenean, kolonizatutako lurralde horietako lurrak bereak balira bezala jarduten zuten, hango den-dena hartu eta eramateko modukoa zelarik, lapurtzen eta erauzten eta idokitzen eta lauskitzen ari zirelako lotsa izpirik gabe ahitu arteko harrapari grinarekin.

Meak, uztak, urak eta abar amaiezin bat harrapakin errazak ziren zizpa besapean zuenarentzat. Asekaitzarentzat horiek nahikoa ez eta pertsonak lapurtu eta saltzen zituzten, bizi-pisa eta beroarena kendu gabe. Euskal Herrian jauregi ederrik izango da bere lurrari ebatsitako arima haien zigor zartailuz ebakitako bizkarren bizkar.

Pertsonak lapurtu eta saltzea gutxitxo eta kaiolatan sartu eta erakusgai jartzen zituzten; jabearen handitasunaren eta adimenaren erkagai. Hipolito Medici (1511-1535) kardinal italiarrak zuen "bilduman" animalia exotiko ikusgarrien artean, afrikar, indiar, turkiar, tartaro eta mairurik ez zen falta, errenazimentu humanistaren pizkunde bizian. Okerrena XIX. eta XX. mendeetan etorri zen, mundu "aurreratu" guztian... Akademiako zientzialari nagusien babesarekin, arrazen arteko hierarkia eta kolonietako inpe-




1905ean Liejan (Belgika), mundu mailako expo kolonialaren zati zen "herri senegaldar" reko aintzira.

rioen eraikuntza aitzakiatzat hartuta, gu bezalakoak ez zirenak erakusgai jartzen genituen jende zoologikoetako kaiolatan. Marsellan (1906 eta 1922) eta Parisen (1907 eta 1931) mundu mailako expo kolonialetan ere ikusgai jarri zituzten eta Parisko azkeneko horretara 34 milioi bisitari joan ziren. Bruselan, 1958ko expoa izan zen azkena, kongotarrez osatutako herri bat erakutsi zen. Baina horrek sustatu zuen arrazakeria modernoak oraindik bizi-bizi dirau gure artean ere.

Zoologikoetan pertsona ez besteko era guztietako animaliak erakusten dira gaur ere. Izugarritzko borroka dago horien aurka; animalismoaren dotrinek izugarritzko kuraia eman diete zoologikoetako etengabeko bizitza torturaren aurkariei. Hor ere zientzialariak dira eta izango dira zoologikoak galeraztearen aurkari nagusiak. Baina badator. Badator atzera bueltarik ez duen iraultza; gure ahizpa animalien eta abereen ongizatea lehen mailako kezka da, eta torturaren katebe-gi gorenena diren makrogranja eta arrain

haztegi industrial jasanezin, kutsatzaile eta txikitzaileek elorrio izango dute, gero eta elorrio arantzatsuagoa. Horiei darien odol usainarekin batera garbi aditzen da etorkizunik izango ez duten usaina.

Gaurko nire galdera haratago doa, goaztean mende bat atzera, XXII. mendera. Hemendik ehun urtera, landareen kartzelak galaraztea izango da borroka. Baina ez lorategi botanikoak soilik. Espaloietako bizitza nakaitz iguingarrian bizitzera behartzen ditugunak. Ustez dotoreak eta bizipozgarriak ditugun lore baratzetakoak. Gure etxe barru itsusi mortaletan, bero-lehorretan, lurrin eta pintura artifizialez kutsatutakoetan, musika ustez jantzia edo alaia entzunarazten denetan, pantailetatik kirol-pornografia ikusaraztera behartzen ditugunak. Epaitu, moztu, mogarratu, inausi eta era guztietako mutilazioekin estiratu eta torturatzen ditugun landare guztiak. Krimen horien esklabu denen askapenerako egunaren antolaketa hasia da dagoeneko. ●



Bodegas Lezaun
ASADOR - JATETXEA



BISITAK GIDATUAK MAHASTIETARA •
BISITAK GIDATUAK UPETEGIRA •
ARDO-DASTATZEAK •
BAZKARIAK ETA AFARIAK •
ARDOEN ZUZENENKO SALMENTA •

📍 LAKAR -DEIERRI- (NAFARROA) ☎ UPEGIA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM ✉ INFO@LEZAUN.COM

ARBOLAREN BESTA

EUSKAL HERRIKO
ARBOLA EKOIZLE
TXIKIEN PLAZA
BIRIATUN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ainitza mintegiko laborariak dira Aimar Rodriguez eta Audrey Hoc. Arbolak txertatzen eta fruitu arbolak ekoizten dihardute hainbat lursailetan. Baina, mintegiaz gain, Oma elkartea sortu dute ekoizleek azken urteotan, eta Biriaturko Herriko Etxearekin elkarlanean Arbolaren Besta antolatzen dute. Hirugarren edizioa izanen da aurten, azaroaren 29an, eta egun osoko egitarau ederra prestatu dute. Tokiko arbola, fruitu arbola eta landare ekoizle txikien merkatuaz gain, tailerrak, mintzaldiak, antzerkia, jokoak, jatekoak eta beste izanen dira Biriaturun. ARGIAren 2026ko *Ilargia eta Landareak* agendaren aurkezpena ere bertan egingen dugu.

BIRIATU, ELIKADURA
BURUJABETZAREN BIDEAN

Mintegia martxan jartzeko lur bila ari ziren Hoc eta Rodriguez 2023an, eta Biriaturko Herriko Etxearekin harremanetan jarri ziren. Orduan sumatu zuten herrian elikadura burujabetzaren bidean eta bioaniztasunaren alde ekimenak bultzatzeko gogoz zirela, eta elkarlanean, lehenbiziko Arbolaren Besta antolatu zuten. "Biriatura bizitzera etorriko ginela adostu genuen, gaiaren bueltan ekimenak bultzatzen hasteko, udalaren babesarekin. Alokairuan bizi gara", diote ekoizleek. Mintegia Orthez herrian dagoen arren, Etxalarren dute baso jangarria laborariak, eta handik ateratzen dituzte zuhaitz guztiak. "Gure basotik ugaltzen ditugu arbolak", diote.

Aurten, azokarekin batera beste ekimen berezi bat ere egingen dute herrian. "Biriatur sarreran fruitu arbolekin egin-dako hesi jangarri bat landatzen ari gara, herritarrentzat izan dadin. Maiatzean

hasi ginen landaketekin, barietate tropikalak, ahuakateak eta zitrikoak jarri genituen", azaldu dute. Orain, berriz, bestaren biharamunean, bigarren zatia landatuko dute, herritarrekin auzolanean. Fruitu arbola klasikoagoak jarriko dituzte bigarren txanda honetan, sagarrondoak eta antze-koak. "Landaketa herrikoi horretarako izena emateko aukera izanen da Arbola-ren Besta egunean. Iparraldeko herri batean egiten den lehen hesi frutala izanen da, ea herritarrek animatzen diren", diote.

AZOKA BAT ARBOLA
EKOIZLEENTZAT

Oma kideek hutsunea sumatzen zuten, fruitu arbolaren ekoizleen azokena: "Baziren azokak barazkiekin eta bestelakoekin, baina baginen zazpi edo zortzi ekoizle txiki arbolak ekoizten, eta ez genuen guretzako hitzordurik". Hutsune hori betetzeko sortu zuten Arbolaren Besta, eta aurreko edizioetan Ipar nahiz Hego Euskal Herriak bertaratuta dira ekoizleak, baita herritarrek ere. "Jendea azokara hurbiltzea nahi dugu, bertako arbolak aukeratzeko, tokiko ekoizleei erosteko, eta ez joateko multinazionalen dendetara haien arbolak bila", diote.

Azaroaren 29an, goizeko 11:00etatik aurrera egun osoko egitaraua izanen da, haur nahiz helduei zuzendua. 13:30ean izanen da ARGIAren Bizi Baratzeako *Ilargia eta Landareak* agendaren aurkezpen berezia: koadroan daude ikusgai xehetasunak. Iaz eguraldi txarra egin zien antolatzaileei, baina aurten ongi prestatuta datoz: "Eguraldi txarra egingen balu, frontoi barruan izanen da azoka, beraz, ez dago aitzakiarik". ●

ARBOLAREN BESTA BIRIATURUN

larunbata AZAROAK 29

- 11:00** Haur eta familientzako "Basoko bioaniztasuna" tailerra
XOMORRO ELKARTEA
- 12:15** Sukaldaritza basati tailerra
MARLENE HOMATE
- 13:30** ARGIA-ko aurkezpena:
"Ilargia eta landareak" 2026ko agenda
JAKOBA ERREKONDO, ANTON OLARIAGA (ILUSTRATZAILEA)
MADDALEN ARZALLUS (BERTSOLARIA)
- 14:45** Antzerkia: "Zuhaitzekin solasean"
Bakea hoteleko baratzean. 40min
- 15:45** Arbol fruitudunen neguko eta udako txertaketak
Erakuspena eta aholkuak
OMA ELKARTEA
- 16:30** Sendabelarrekin jolasean.
3 joko haur eta helduentzat.
ELORRI IGUINIZ (SORGIN BELARRAK)

Igandea AZAROAK 30

14h-17h LANDAKETA HERRIKOIA

AURKEZPEN
BEREZIA BIRIATURKO
ARBOLAREN BESTAN

NOIZ: Azaroaren 29an, 13:30ean.

NON: Biriaturun, Elkartea Gelan (plaza ondoan).

Ilargia eta Landareak 2026ko agendaren aurkezteko ekitaldi berezian, Jakoba Errekondok fruta arbolaren azalpenak emango ditu, Anton Olariagak umorez aurkeztuko ditu agendarako egin dituen ilustrazioak eta Maialen Arzallusek bertso jarriak kantatuko ditu.

